

Palestinaren etorkizuna



Herrialde arabiarretan gaitzespenik gogorrena eragin du Hebrongo hilketak

Nazioarteak esku hartzea eta kolonia juduak desagertzea exigitu dute

Hebon hiri okupatuko meskitan atzo gertatutako hilketak herrialde arabiarren gaitzespenik gogorrenak eragin zituen berria zabaldu bezain laster. Guztiek auzia nazioartean eztabaidatu behar dela aldarrikatu dute eta juduen koloniak desagertzea exigitu.

JONE LARRAÑAGA / DONOSTIA

Israel inguratzen duten herri arabiarretako buruzagiak gogor mintzatu ziren atzo Hebrongo Ibrahim (Abraham) meskitan kolono judu batek egindako hilketaren aurka. Bat etorri ziren guztiak honelako ekintzei amaiera emateko neurriak berehala hartu behar direla adieraztean, eta ildo honetan nazioarteko komunitatearen eskuhartzea eskatu zuten, gertaera honek eskualdea «lehertaraz» dezakeen beldur.

Egiptok «krimen lazgarri» iritzi zion atzo 40 hildakotik gora eragin zituen erasoari. «Egiptok indar guztiz gaitzesten du estremismoari aurre egiteko beharra azpimarkatzen duen krimen lazgarri hau», adierazi zuen atzo Amro Musa bertako Atzerri ministroak prentsari egindako adierazpenetan. Egiptoko diplomazia buruaren arabera, atzoko gertakariak agerian uzten dute israeldarren segurtasuna ezezik palestinarrak ere bermatu beharra. «Ez dira israeldarrak bakarrik segurtasun beharra daukatenak», arrazoitu zuen Musak.

Atzo goizekoak errepika ez daitezkeen, nazioartean eskuhartzea eskatu zuen Egiptoko ordezkariak. Ildo honetan, Iasser Arafat Palestinaren Askapenerako Erakundea (PAE) lehendakariaren eskariari jarraiki Segurtasun Kontseiluak bilera berezia egingo balu, Egipto bertan egongo dela gogorarazi zuen.

Gai honen harian Esmat Abdel Liga Arabiarreko idazkari nagusiak jakinarazi zuenez, erakunde honek Nazio Batuetan duen enbaxadorea hasi da harremanetan herenegun Hebronon jazotako gertakariak eta beronen ondorioak maila diplomatiko gorenean eztabaida daitezkeen.

Oro har Egiptorekin bat etorri zen Jordania. Abdel Salam Mayali bertako lehen ministroak gogotik gaitzetsi zuen Hebrongo hilketak, eta «historian aurrekariarik ez du krimena» dela iritzi. Horrek «giza eskubideak erres-



Gerra santurako deia egin zuten atzo meskitetik.

REUTER

petatzen ez duen estremismoak» aurrera jarraitzen duela frogatzen duela gaineratu zuen, eta halakorik errepika ez dadin Lurralde Okupatuetako kolonia juduak desagertarazi egin behar direla gaineratu.

GERRA SANTURAKO DEIA Jordania eta Egipto baino gogorrago mintzatu zen Siria. Damaskoko Gobernuak Tel Avivekoari egotzi zion zuzen-zuzenean hilketaren ardura. Ildo honetan, Israelek neurri gogorak hartu beharko dituela dio Atzerri Ministerioak kaleratutako oharrean, «bestela eskualde guztia lehertu egin liteke»

eta. Palestinaren aurkako sarraski honek gaitzespen gogorak eragin baditu, are larriago izan litezke ondorioak krimenak erlijioarekin lotura zuzena izan duela kontuan hartzen bada. Gobernu buruak, ministroak eta hainbat erakundetako ordezkariak, guztiak bat etorri dira eraso leku sakratuan (Ibrahimi meskitan) eta musulmanek sakratutzat duten hilabetean (Ramadam) izateak krimena askoz larriago bihurtzen duela adieraztean.

Ezaugarri hau oso gogoan izan zuten atzo buruzagi erlijiosoen. Herri arabiarretako imanek sututa mintzatu ziren sermoietan, eta Ekialde Erdiko bake proze-

suaren aurkakoak izaki, mende-kua hartuko dutela adierazi zuten.

«Utzi bertan behera negoziazioak eta berehala prestatu Israelen aurkako *jihad*-a (Gerra Santua)», adierazi zuen Hamam Saed Amaneko meskitako buruak eta Jordaniako Parlamentuko diputatuak. «Hemendik aurrera moztu egin beharko ditugu judutarrei zabalduetako eskuak. Abraham Profetaren meskitako martiriaren odola izango dugu judutarren aurkako borrokarako erregaia, eta Israelekin negoziatzen dute traidore koldarrak desagertaraziko dituen leherkaria», gaineratu zuen.

Mendebaleko gobernuek bake prozesuan jarraitu beharra azpimarkatu dute

DONOSTIA

Herrialde arabiarretan ezezik, mendebaleko herrietan ere erreazio gogorak eragin ditu atzo goizaldean Zisjordaniako Hebron hirian gertatutako hilketak. Etxe Zuriak iritzi zionez, gertakari hauek oraindik ere gehiago azpimarkatzen dute israeldarren eta arabiarren artean bake akordioa lortu beharra.

«Gaitzespen gogorra merezi duen ekintza koldarra izan da», adierazi zuen Dee Dee Mayers bozeramaileak.

Halaber, Warren Christopher Estatu idazkariak lasaitasunerako deia egin nahi izan zuen Ekial-

detik zetozen berriak jakin bezain laster. «Bake prozesuan parte hartzen ari diren aldeek saihestu egin behar dute biolentzia mota honek bakearen bidetik jarraitzea eragotzi diezaien», dio Estatu Idazkaritzak atzo zabalduetako prentsa oharrean.

Estatu Batuetan beldur dira Ekialde Erdian bizi den tentsio giro gogorra lehertuko den eta, hortaz, bertara bidaiarik ez egiteko gomendioa egin diete estatubatuarrei, eta bertan edo Europar badira kontu handiz ibil daitezkeen eskatu.

Frantziaren Estatu Batuen ildo bereko erreazioak izan ziren atzo nagusi. Atzerri Ministerioak

kaleratutako oharrean «krimen lazgarria» iritzi zion atzo Hebrongo meskitan gertatutakoari, eta «biolentzia giroa ez lehertzeko» ahaleginak egin ditzaten eskatu zion israeldarrei eta palestinarrei.

Frantziaren arabera, «bake orokorrak baino ez du ahalbidetuko honelako enfrontamenduak gaindi daitezkeen».

Guztiz bat etorri zen azken adierazpen honekin Espainiako Gobernuak. «Bake prozesua eta printzipio deklarazioa berehala indarrean jartzea da biolentziari aurre egiteko aukera bakarra», dio Madrilgo Atzerri Ministerioak kaleratutako oharrean.

LABURREAN

ALGERIAN zazpi lagun hil dira enfrontamendu armatuetan

Gerrilari armatuen eta Segurtasun Indarren artean Argel inguruan izandako enfrontamenduetan zazpi lagun hil dira —hauetarik bost poliziak—, iturri ofizialek atzo jakinarazi zuten. Hauen arabera, Benzerga herrian polizi patruila bat tirokatu zuten 20 bat gerrilari islamikok. Eraso zietela jabetuta, tiroka erantzun zuten poliziek ●

KUBAREN aurkako blokeoaren aldeko manifestaldia

Estatu Batuetan bizi diren 1.500 exiliatu kubatarrek Washingongo Kongresuak irlaren aurkako blokeoari eutsi diezaien eskatu zuten herenegun, harik eta «Kubara demokrazia eta askatasuna» iritsi arte. Kubako Errebelatzearen Aldeko Batasunaren Martxak EEBBetako politikari errepublikar eta demokratatalse zabal baten babesa jasozuen ●

LONDRESEN aurka protesta egin du Malaysiak

Malaysiako Gobernuak ez die berak finantzaturako proiekturik emango enpresa britaniarrei. Malaysiako lehen ministroa ustelkerian aritu dela dioten informazioak agertu dira azken egunotan. Erresuma Batuko prentsari, eta Kuala Lumpurko Gobernuak horrela agertu du bere haserre. Anwar Ibrahim lehen ministroarekin iragarri zuen atzo Erresuma Batuko enpresen aurkako neurri hau ●

HEGO AFRIKAN 158 haur hil zituzten iaz

Hego Afrikako biolentzia politikoak eraginda, gutxienez 158 haur hil ziren joan den urtean, Hego Afrikako Giza Eskubideen Aldeko Batzordeak argitaratu berri duen txostenean bildu duenez. Gainera, 208 haur zauritu ziren tribuen arteko enfrontamendu gogorretan. Guztira, 4.500 lagun hil ziren iaz gatazka politikoak eragindako borroketan ●